

# Oñatiko Historia eta Arteaz

Behin baino gehiagotan aipatu dut Gipuzkoa barnean zein berezia den Debarua, historiako lehen berriak, bardiak aparte, karrioteen ekaldeen, euskaldiz bizkaieraruntz eta elizaz Kalahorrakoa. Erdi Arotik merkataritzaz ongi errotua, Gaztelako merkataritzi Arlabandik itas-hegalako biderik erazena aurkitzen zutenaz. Ezia kasualitatez Mondragoeko eliza, bere arkitekturaz, hiru zoladun gotikohandietan Gipuzkoan lehena izatea (XIV. mendean erdialdera eraikia). Baina, horrez gainera, industria teknika gaietan Euskal Herrian aurreratuen ibili izan da Debarua. Mondragoek, meategiak ez ezik, ezpataintzarik hobereenaren ospea zuen Erdi Aroan. Markinaldean, Elgoibar buru zela, Espainiako lehen sukzuma "portatil" horietakoak egiten ziren XV. mendean azkenaldetik. Ate morrologintza eta herrajegintza, naiz burdinazko tresneriagintza, garai haietarako ezagutzen zirenak.

Oñatiko Unibertsitatea bera, behar bada ez zen jaun baten ames hutsetik sortua, baizik bertako eta inguruko giroa hortarako lagungarri iduritu zitzaizolako. Garai hartan Holandresen ibarretan bezala, hiriak biztanlez txikiagoak baziren ere, elkarrengandik hain hurbil eta abeltzaintza eta nekazaritzara baino biztanle gehiagorik merkataritzi, gremio, alagizon... dinamika bereziz osatzen zen Debarua guzua. Gure egunetako, haren ondorena besterik ezta. Eta, norik daki, Peñafordiko kondeak berak ere, Azkoitiko "zalduntxoan" mugimendu hartan, senidetasunez gainera bertako giroa ez ote zuen izan arrazoi-etariko bat Euskal Herriak goi mailako jakintzetan bere baitarik sortu zen Mintegia Bergaran kokatzeko?

Berezia izan da Gipuzkoan Debarua, eta berezia Oñati Debaruan bertan. "Oñate, villa por sí", hiri honetako herriagandik sortzen zen, konde edo jauntxokierien gainera. Erregek, kondepeko jarraitzaera laguntzen bazuen ere, herriaren pragmatika ez zen hortik joan; baina ezta beste zenbait xaharrena ere, Lazarragatarrak lekuko. Herriak, inoiz, Gebarakin jokatu zuen, baina urrengo Gebarari jokatu zion. Oñatiarrak, beste inoiz baino lehen agertuko ziren Gaztelako erregeen gortean (Idiaketzarrak baino lehen) eta beste zenbait karguren duinatasunez. Hau da oraindik behar bezala estudiatu gabeko kontu bat.

Pertsonaia berezirik ezta jatta izan Oñatiko historia guzian. Beren lekukotasunez hor daude torretxe eta jau-

regiak, baina baserrien bikaintasuna ere aspaldikoa dugu. Antsolpetegiren parte bat dugu horren lekuko. Bestalde, auzoetako eremitatik hasi eta katedral gisako San Migel parokiara arte, Bidaurreta eta monastegia tartean dela, bada arte baliozko gauza ederrik.

Gipuzkoan, Donostia kenduz gero, ezta beste hiribat hain estudiantua izan denik. Saez de Puerto Hernanik hasi zituen historia ikerketak Inaki Zumaldek burutu zituen Oñate (1957) deritzan libururik. Biltar-tean, aipagarriak dira Lizarralde Unibertsitatearen historiaz eta Comas-Ros-ek Bidaurreta monastegiaz idatzituztenak.

Baina, urak ibaira, eta ibaiak itsarora bezala, historia- ren oinarriak ondo jarrita dituztenak ikergaiak ere ugar- riago eskaintzen dituzte. Eta, hara nola, lehen hainbeste lan egina den tokitik sortu den Oñatiko Historia eta Arte bilduma deritzan libururik, herriko liburutegikoek ekarlanean burutuak.

Bere sarreran, lurralde fisiko eta biztanle egoitzaren geografia adierazten da; ondorean, historia, arte, etno- grafiaz eta arkeologiarekin orainarte egin denaren berri- zehatzen bilketa. Arte ondasunen inbentarioa da kapitulu- rik handienetakoa ez ezik sakonena eta handiena ere bai. Taxuz egina dator, auzorik auzo baserriak adieraziz; ber- din torretxe, ermita eta Arantzakuko eliza zaharra naiz berriaren xehetasunak emanez. Ondotik dator kaleko in- bentarioa, momento zibil eta erlijiozkoak banan banan adieraziz. Hor ageri da Oñati aberats; Gipuzkoak herri aberatsik baldin bada, denen gainetik jarri beharrezkoa bai da Oñati.

Heraldika edo leinuen ezkutoak ere biltzen ditu. Baina, Oñatira doazen kanpotarrei hain nabarmen ager- tzen zaien iturriak, arte zentzuz hain egoki eraikiak, banan banan biltzen ditu, marrazki eta agiritz. Inguruko- bilera testu ategien batean jarzen du, kanpotarren oroi- tzapenerako. Baina, baita ere ematen ditu azken urtee- tiko ekinzen, edo industriagintzen... berriak ere.

Liburu ondo aurkeztua da, bai neurritz eta bai argaz- kiz eta marrazkiz. Liburu ereduagaria iduritzen zaigu, eta inguruko herriek lantzen dituzten har dezatena. Oñatin hai- nako arte baliorik ez badute ere, dagoena ezagutu beha- rra bai dugu. Arte aldetik, Gipuzkoan argitaratzen den lehen inbentarioa dugu eta horrek beste gabe baliatzen du

liburua; baina, horrez gainera, gure historia eta kultura hobeto ezagutzeko lagungarri zaiguna. Bira ere, adibide ederra, langile talde batek, plangintza serio batekin eta ekin-tza metodologia minimun bat jarraituz zer egin de- zan.

Juan SAN MARTIN

Una vez más, de la manera más modesta y de la villa que más ha investigado y publicado sobre su pasado histórico, nos viene el ejemplo al presentar el **Inventario Histórico-Artístico del valle de Oñati**. Un voluminoso libro realizado por el equipo de la Biblioteca Municipal de aquella localidad. Con una introducción general describe el medio físico y las características del hábitat en Oñati, con sus núcleos de información, para seguir con un capítulo de información general de las investigaciones realizadas hasta nuestros días de Historia, Arte, Etnografía y Arqueología, acompañado de una bibliografía general.

Los capítulos centrales se dedican al inventario artístico. Primero del mundo rural, por barrios y caseríos. Hubiéramos deseado planos más completos de la distribución interna, con crujiás inclusive, para conocer mejor la función del inmueble. Tal como se cumplimenta en las casas-torre. En la parte arqueológica aporta una nueva estela discoidal para Guipuzcoa. El cedente de la zona de Artia. Está muy bien llevado el estudio de las ermitas y del vicjo y nuevo Aranzara. El inventario del casco urbano es muy importante, dando los valores artísticos existentes: parroquia y casas palacio. Dedicamos un breve capítulo a los escudos heráldicos y a los hombres ilustres.

Las artísticas fuentes públicas de Oñati, bien se merecían un capítulo aparte y se recogen dibujos y documentos de la época de su erección.

Lleva unas evocadoras páginas finales, con un recorrido leve para ver y recordar su historia y sus rítmicos momentos de la época de su erección.

Y finalmente, una relación de construcciones industriales de la postguerra y una relación de artistas con obra en Oñati. Todo ello con abundante documentación fotográfica.

## Bertsolari txapelketako doinuak (V)

Orain hamar egun duela, bertsolariek ingandako bileran, onartu zuten hamarreko nagusia edo handia ere Txapelketaren azken aldiari, hots, Azaroan hasiko denean, bertso moeta behartuen artean sartzea. Lehen aldiari hiru bertso moeta bakarrik izan ziren behartuak, hau da, zortziko txiki eta nagusia eta hamarreko txikia. Baina behartua izan ez arren, agurritan eta kartzela gaitan batek baino gehiagok erabili zuten hamarreko handia. "Bertsotan" liburuan hiru doinu batzuek ez dira ematen bertso molde hau kantzatzeko, eta hiruretatik bi, "Misiolari baten moduan" (B. 98) ez ezik, beste biak kantatu dituzte gure bertsolariek Txapelketaren lehen fasean, bi hauek eta beste lau gehiago, sei doinu guztira, erabili baitira hamarreko handia kantzatzeko. 1967.eko Txapelketan doinu bakar bat erabili zen eta 1980.ekoan lau. Doinu aberastuan aldetik aurrera goazela esan dezakegu.

Hamarreko handiak hamar bertsolarro ditu (hamarreko txikiak bezalaxe) eta 10-8 silabakunak dira bertsoaren lerro par eta eziparrak (zortziko handian bezala). Hemen ere hamarreko txikia oinarritzat harturik, batzuetan behintzat, bi lerro edo pentagrama gehiuz osatzen da hamarreko handia. Eta askotan bertsolariek entzuleek ere parte hartzea lortzen dute azken bi lerroak batera kantatu arazi, hamabi lerroko bertsoa hala osatuz. Hamaita eta hamabigarren pentagramak bederati eta hamargarrena bealakoak izaten dira gehienetan. Baina batzuetan, hamabi pentagramadun bertsoa osatzen denean, era honetara osatzen dira azken lau lerroak, Telleriak Hernanin egiten erant:




Aurtongo Txapelketaren lehen fasean kantatuako sei doinuak, hamarreko nagusia edo handia erabilteko, hauek izan dira:

### A. Biko erritmoan

- 1.- 1980.eko Errege egunean Amurizak kantatu zuen doinu edo hau (Auspua 141, 36), kartzela gaia erabilteko kantatu zuten Urrustik Tolosan, Arrosagarik Hernanin, Aurrek Zornotzan eta Muriak Azkoitian, eta agurra kantzatzeko Altunak Azkoitian bertan.
- 2.- Kartzela gaia kantzatzeko erabili zuen doinu hau Altzak Hendaian;
- 3.- "Bertsotan" liburuan agertzen da doinua hau (B. 96) eta 1980.eko Txapelketan ere kantatu zen (Auspua, 141, 1). Aurtongo Telleriak erabili zuen Hernanin agurra kantzatzeko;


### B. Hiruko erritmoan

- 3.- Amurizarena dugu doinu hau, 1980.eko Txapelketaren finalean lehenbiziaz kantatua, nik dakidanik behintzat (Auspua 141, 16). Alkatek Hendaian agurra kantzatzeko eta Zelaik Aramaion kartzela gaia jartzeko erabili zuten doinua dugu;




### C. Zortziko (5/8) erritmoan

- 4.- Nahiz eta bertso barruan erritmoa noiz behinean 3/4 konpasarekin kantatu, bertsolariek azkar asmatzen duenean bertsoa 5/8 erritmoan kantatzen du ia beti. Kartzela gaia jartzeko Telleriak Hernanin eta Jose R. Etxebarriak Azkoitian doinu hau erabili zuten;
- 5.- "Bertsotan" liburuan agertzen da doinua hau (B. 96) eta 1980.eko Txapelketan ere kantatu zen (Auspua, 141, 1). Aurtongo Telleriak erabili zuen Hernanin agurra kantzatzeko;



- 6.- Aspalditik eta maiz erabiltzen den doinua dugu azken hau. "Bertsotan" liburuan (B. 96) argitaratua dago eta 1967.eko Txapelketan eta 1980.ekoan ere erabilia (Auspua 67, 13; 141, 3). Agurra kantzatzeko erabili zuten Hernanin Lakak, Tolosan Altunak, Markinan eta Azkoitian Deunorik Sarduik, Lesakan Lertxundiak, Hendaian Aretitok eta Jesus Mari Sarduik, Zornotzan Aitolak, Oñatiko eta Telleriak; kartzela gaia erabilteko ere kantatu zuten doinu hau Lesakan Muriak;



Orain arte Astelehenetako Orri honetan argitaratu eman dituzten doinuak lau bertso moldeei dagozkiekan dira: zortziko txiki eta handiak eta hamarreko txiki eta handiak. Lau bertso molde hauek behartuak izan daitezke Txapelketaren urrengo aldiari, eta behartuak izango dira noski. Badute hemene bertsolariek bilduma nahiko ugari bai bertso behartuak kantzatzeko. Baina bilduma hau aberastuta da bertsolariek eskertuko geniekena.

Jose Antonio ARANA MARTIJA

En la primera fase del Campeonato de Bertsolaris de este año (1984) solamente han sido obligados a cantar tipos de estrofas, los zortziko txiki y mayor y el hamarreko moeta. Sin embargo, hemos podido observar en varias ocasiones el uso de otros tipos de estrofas, como el bertsolaris mayor, que como estrofa libre, ha cantado los bertsolaris al hacer un saludo y al cantar los temas de los nacidos al salir del encierro. Por tanto, este tipo de estrofas, que en los cantados en este Campeonato de Bertsolaris de 1967 sólo se cantó una vez, en los cantados en este Campeonato de Bertsolaris de 1980 fueron cuatro las melodías que se cantaron para este tipo de estrofas. En la primera fase ya celebrada en Oñate, cantado seis melodías diferentes, cuatro cantadas en anteriores Campeonatos y dos nuevas o para completar decir, antiguas melodías no cantadas en dichos Campeonatos precedentes.

Dos de estas melodías han sido de ritmo binario, una de ritmo ternario y tres en compás de zortziko. En la primera fase ya celebrada en Oñate, se reporta al menos dos ventajas. La primera a las actuaciones de nuestros bertsolaris, huyendo de la monotona utilización de pocas melodías. Pero sobre todo, destacaría algo fundamental, que es cantada en vivo se consigue una gran fresca la escena de nuestra música popular, cosa que nunca se consigue en un momento de grabación suficiente para ser bertsolaris.